

Nafarroako jaiotzen onomastika  
Populazioaren Berezko Mugimendua. Jaiotzak  
2022. urtea. Behin-behineko datuak

## Mateo, Martín, Oihan, Lucía, June eta Ane dira 2022an Nafarroan jaio diren haurrei maizenik jarri zaizkien izenak

956 izen desberdin erabili dira, 2.300  
neskarentzat, eta 921, 2.395 mutilentzat

Atzerriko familiek, nagusiki, izen konposatuak  
jartzen dituzte.

Handiagotzen jarraitzen du amaren deitura lehen  
tokian duten neska-mutilen kopuruak

2023ko maiatzaren 19a

### MAIZENIK JARTZEN DIREN IZENAK

2022an, neska-izenetan, lehena *Lucía* da hautatuetako lehena; *June*, bigarrena, eta *Ane* eta *Irati* eta, hirugarrenak; bi azken horiek kasu kopuru bera izan dute. Mutil-izenetan, lehena *Mateo* da gogokoena eta, ondoren, *Martín*<sup>1</sup> eta *Oihan*. Emaizta horiek atera dira Nafarroako Estatistika Erakundeak (Nastat) Nafarroako Jaiotzen 2022ko Estatistikari buruz dituen behin-behineko datuetatik.

<sup>1</sup> *Martín* izena euskaraz azentu-markarik gabe idazten da; ustiapenean ez da bereizten eta oharrean azentu-markarekin idazten da.



## 1. TAULA

Jaiotakoei maizen jartzen zaizkien izenak: bilakaera. 2022. urtea

HURRENKERA	NESKAK					MUTILAK				
	2022	2021	2020	2019	2018	2022	2021	2020	2019	2018
1	Lucía	Nahia	Lucía	Ane	Lucía	Mateo	Martín	Julen	Martín	Aimar
2	June	Ane	Ane	Sofía	Irati	Martín	Mateo	Mateo	Mateo	Hugo
3	Ane	Irati	Irati	Irati	Sofía	Oihan	Julen	Martín	Iker	Ibai
4	Irati	Lucía	Sofía	Lucía	Ane	Julen	Hugo	Aimar	Aimar	Martín
5	Laia	Martina	June	Nahia	Noa	Lucas	Leo	Ibai	Julen	Julen
6	Martina	June	Noa	Laia	Nahia	Aimar	Oier	Lucas	Ibai	Javier
7	Nahia	Sofía	Valeria	Martina	Sara	Leo	Enzo	Ander	Lucas	Lucas
8	Sara	Julia	María	Noa	Laia	Oier	Lucas	Leo	Oihan	Oier
9	Sofía	Lara	Nahia	Sara	Leyre	Daniel	Javier	Oier	Unax	Unai
10	Noa	Noa	Laia	Paula	María	Nicolás	Markel	Daniel	Mikel	Adrián

Iturria: Nastat. Ugalkortasun- eta jaiotza-estatistika. INErekin elkarlanean.

## BANAKETA, SEXUAREN ARABERA

**Neskak.** 2022an jaio ziren nesken artean, *Lucía* da gehien erabili den izena; 2002. urtetik hona, beti egon da lehen 6 posizioen artean, 2012an izan ezik. 2022an, 46 neskari jarri zitzaizkien izen hori, 40ri *June* eta *Ane* eta 32ri *Irati*. Zerrendan hurrengoak *Laia* (31) eta *Martina*, *Nahia* eta *Sara* dira (29).

**Mutilak.** Izenik gustukoena *Mateo* da (42) eta, 2019. urtetik hasita, lehen bi posizioen artean dago, baina aurretik ez zen hain maiz jartzen. *Martín* da bigarrena (36) eta *Oihan* (33) hirugarrena. Jarraian, *Julen* eta *Lucas* (32 bakoitza) ditugu.

**Igoerak.** 2021ean erregistratutako izenekin alderatuta, berritasun moduan, *Oihan*, *Aimar* eta *Nicolás* sartu dira gehien erabilitako hamar izenen artean. 2021ean hamahirugarren, hamaseigarren eta hemezortzigarren posizioan zeuden, hurrenez hurren. Neskei dagokienez, *Laia* eta *Sara* sartu dira; aurreko urtean, hamabigarren eta hamaikagarren tokian zeuden.

**Jaitsierak.** Aitzitik, lehen hamar posizioetatik desagertu dira *Julia* eta *Lara* neska-izenak (18 eta 16 postu jaitsi dira, hurrenez hurren). Mutil-izenetan, *Enzo* izena nabarmentzen da, 22 postu egin baititu behera, eta *Markelek*, 8.



## IZEN-BARIETATEA


Neskentzat hautatzen diren izenak mutilentzat hautatutakoak baino gehiago dira. 2022an, 956 neska-izen desberdin<sup>2</sup> erregistratu dira jaio diren 2.300 nesketan. Aldiz, 921 izan dira mutil-izen desberdinak jaio diren 2.395 mutiletan.

## NAFARROA 2000 ZONIFIKAZIOAREN ARABERA

Nafarroako Ipar-mendebaldean izenik ohikoenak *Izaro* eta *Juler*<sup>2</sup> dira (lehen, nesken artean eta, bigarrena, mutilen artean). Pirinioaldean, berriz, nagusi dira *Laia* neska-izenetan eta *Ade*<sup>2</sup> mutilenetan. Iruñean maizenik jartzen diren izenak *Lucía* eta *Martín* dira, eta, Estellerrian, *June* eta *Ander*. Nafarroako Ekialdeko Erdialdean izenik ohikoenak *Mia* eta *Oihan* dira, eta, Erribera Garaian, *Lucía* eta *Javier*<sup>2</sup>; azkenik, Tuteraldean, *Martina* eta *Mateo* dira ohikoenak.

### 1. GRAFIKOA

Maizenik jartzen diren izenak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera<sup>3</sup>



Iturria: Nastat. Ugalkortasun- eta jaiotza-estatistika. INErekin elkarlanean.

<sup>2</sup>Izen desberdintzat hartzen dira grafia desberdina dutenak, fonetikoki berdinak badira ere.

<sup>3</sup> Lehen posizioan izen bat baino gehiago dagoen eremuetan, lehen hautatu da, hurrenkera alfabetikoko irizpideen arabera.



## IZEN KONPOSATUAK

2022. urtean erregistratu diren 1.877 izen desberdinetatik, % 31,3 izen konposatuak dira, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago. Mutil-izenetan, kopuru hori % 35,3koa da; neska-izenetan, berriz, % 27,4koa. Lehen ehunen zerrendan, bat ere ez da konposatua.

### 2. TAULA

Izen konposatuen banaketa, sexuaren arabera. 2022. urtea

	Izen konposatuak	Izenak, guztira	Guztizkoaren gainera %a
Mutilak	325	921	35,3
Neska k	262	956	27,4
GUZTI RA	587	1.877	31,3

Iturria: Nastat. Ugalkortasun-- eta jaiotza-estatistika. INErekin elkarlanean.

Izen konposatuak ezartzean izan daitezkeen konbinazioak askotarikoak dira, eta ia ez da errepikapenik gertatzen. Izen konposatuak jartzen zaizkien ehun jaioberri bakoitzeko 98k izen desberdinak dituzte.

### 3. TAULA

Izen eta jaiotzen banaketa, sexuaren arabera. 2022. urtea

	Guztira			Bakunak			Konposatuak		
	Izenak	Jaiotzak	izenen % jaiotakoan artean	Izenak	Jaiotzak	izenen % jaiotakoan artean	Izenak	Jaiotzak	izenen % jaiotakoan artean
Mutilak	921	2.395	38,5	596	2.065	28,9	325	330	98,5
Neskak	956	2.300	41,6	694	2.034	34,1	262	266	98,5
GUZTIRA	1.877	4.695	40,0	1.290	4.099	31,5	587	596	98,5

Iturria: Nastat. Ugalkortasun-- eta jaiotza-estatistika. INErekin elkarlanean.

**Atzerritarrek** aukeratzen dituzte gehienik izen konposatuak, eta izen konposatuak dituzten haurren kasuen % 89,3an gurasoetako bat atzerrian jaiotakoa da.

Bi gurasoak jatorri amerikarrek dituzten familiek jarraitzen dute nagusi izaten izen konposatuak nahiago dituzten artean, eta, nagusiki, Ekuadorretik, Perutik, Dominikar Errepublikatik, Boliviatik eta Nikaragutik etorriak dira. Bestalde, izen konposatuak gutxien erabiltzen dituztenak dira bi gurasoak jatorri asiarrak dituzten familiak.

Horrez gain, izen konposatuak dituzten jaioberri guztietatik, kasuen % 75,5ek gurasoetako gutxienez batek izen konposatua du.



## GURASOEN JATORRIAREN ERAGINA

Aldeak daude izenak hautatzean, gurasoen jaioterriaren (herrialdearen) arabera.

### 4. TAULA

Gurasoen jatorriaren arabera nagusiki erabilitako izenak. 2022. urtea

Bi gurasoak edo guraso bakarra espainiarra da (1)				Gurasoetako bat espainiarra da eta bestea atzerritarra				Bi gurasoak edo guraso bakarra atzerritarra da (2)			
Neskek		Mutilak		Neskek		Mutilak		Neskek		Mutilak	
Izenak	Kasu-ak	Izenak	Kasu-ak	Izenak	Kasu-ak	Izenak	Kasu-ak	Izenak	Kasu-ak	Izenak	Kasu-ak
June	39	Oier	31	Valentina	7	Leo	7	Amira	14	Mohamed	17
Lucía	37	Mateo	30	Emma	5	Nicolás	7	Sara	14	Amir	13
Ane	32	Oihan	30	Sofía	5	Aimar	5	Nour	10	Rayan	13
Irati	30	Lucas	29	Amaia	3	Hugo	5	Hidaya	9	Adam	10
Laia	30	Martín	27	Aroa	3	Adrián	4	Layan	8	Imran	10
Nahia	24	Julen	25	Chloe	3	Izan	4	Sofía	7	Mateo	10
Enara	22	Aimar	24	Lara	3	Julen	4	Lucía	6	Anas	8
Martina	21	Leo	24	Lucía	3	Ander	3	Afnan	5	Ismael	7
Noa	21	Javier	22	Marta	3	Daniel	3	Amina	5	Daniel	6
Aroa	17	Markel	22	Martina	3	Ibai	3	Ariana	5	Martín	6

(1) Gurasoetako bat bakarrik ezagutu edo identifikatzen denean, eta azken hori jatorri espainiarrekoa bada. (2) Gurasoetako bat bakarrik ezagutu edo identifikatzen denean, eta azken hori jatorri atzerritarrekoa bada.

Iturria: Nastat. Ugalkortasun- eta jaiotza-estatistika. INErekin elkarlanean.

Jatorri espainiarreko gurasoek jarritako lehen lau izenak bat datoz maizenik jarritako izenen lehen postuekin bi sexuetan, baina hurrenkera desberdinean. Gurasoetako bat espainiarra eta bestea atzerritarra duten jaioberriek, besteak beste, *Valentina*, *Emma* eta *Sofía* izenak hartzen dituzte (nesketan) eta *Leo*, *Nicolás* eta *Aimar* (mutiletan). Bi gurasoak atzerritarrek dituzten neskek eta mutilek maiz atzerritar jatorria duten izenak hartzen dituzte. Nabarmentzekoak dira *Amira*, *Sara* eta *Nour* nesketan, eta *Mohamed*, *Rayan* eta *Amir* mutiletan.

Azken kasu horretan, gainera, kontuan izanik jatorrizko kontinentea, sorterrian maizenik jartzen diren aukerak nagusi dira. Esaterako, jatorri afrikarreko herritarren artean nagusi dira *Amira*, *Sara* eta *Nour*, neska-izenetan, eta *Mohamed*, *Rayan* eta *Amir*, mutil-izenetan. Europako herrialderen batetik etorritakoen artean, nagusi dira *Sofía* edo *Vasilía*, neska-izenetan, eta *Daniel*, *Mateo* eta *Eray*, mutil-izenetan.



## GURASOEN IZENAK

2022an jaiotako haurren **amen** izenak iazko ia berdinak izan ziren, baina hurrenkera, desberdina: *María, Laura, Marta, Sara, Nerea, Beatriz, Cristina, Andrea, Amaia eta Raquel*.

**Aitak** nagusiki honela deitzen ziren: *Javier, David, Mikel, Daniel, Miguel, Iñaki, Sergio, Francisco Javier, Carlos eta Iñigo*.

### 5. TAULA

Amen eta aiten artean nagusi diren izenak. 2022. urtea

Hurrenkera	Amaren izena	Kasu kop.	Aitaren izena	Kasu kop.
1	María	121	Javier	133
2	Laura	82	David	112
3	Marta	70	Mikel	106
4	Sara	62	Daniel	77
5	Nerea	62	Miguel	67
6	Beatriz	60	Iñaki	67
7	Cristina	59	Sergio	60
8	Andrea	51	Francisco Javier	57
9	Amaia	50	Carlos	57
10	Raquel	49	Iñigo	56

Iturria: Nastat. Ugalkortasun-- eta jaiotza-estatistika. INErekin elkarlanean.

**Izenak gutxi errepikatzen dira belaunaldiz belaunaldi.** Eskuarki, gurasoek ez dizkiete seme-alabei haien izenak jartzen. Jaiotako mutilen % 2,3k soilik dute beren aitaren izena (2021ean baino 5 hamarren gutxiago). Izen nagusiak *Ángel, David, Iván, Jorge eta Carlos* dira. Bestalde, nesken % 0,5ek dute beren amaren izena, eta errepikatzen den homonimo bakarra *María* da. Gainera, garrantzitsua da nabarmentzea ondorengoei aitaren edo amaren izena jartzeko ohitura handiagoa dagoela jatorriz espainiarrak diren bikoteetan; homonimia kasuen % 87,7 dagokie.




## DEITUREN HURRENKERA

**Gero eta gehiago dira amaren deitura lehen tokian duten neska-mutilak.** Erregistro Zibilari buruzko Legearen Erreforma indarrean sartu zen 2017ko ekainean, eta hark aukera eman zuen jaioberri bati lehen tokian amaren deitura jartzeko, berdintasun-egoeran aitaren deituraren transmisioari dagokionez. Aukera hori handitzen ari da, pixkanaka, eta, 2010ean, % 2,1 ziren amaren deitura lehen tokian hartu zuten neska-mutilak, eta gaur egun, aldiz, % 5,5 dira<sup>4</sup>, 2021ean baino bi hamarren gehiago.

### 2. GRAFIKOA

Amaren deitura lehentzat hartzen duten herritarrak, jaiotza urtearen arabera. 2012tik 2022ra



Iturria: Nastat. Ugalkortasun- eta jaiotza-estatistika. INErekin elkarlanean.

2022an jaiotakoen artean, lehen deiturarik ohikoena *Jiménez* da, eta jarraian datoz *García*, *Pérez*, *Martínez*, *Sánchez*, *González* eta *Fernández*, besteak beste. Baina deitura horiek guztien % 8,3 besterik ez dute egiten, 2.700 baitira jaioberrien artean dauden lehen deitura desberdinak.

<sup>4</sup> Balio hau kalkulatzeko, kontuan izan dira soilik bi gurasoek onarturiko jaioberriak, gurasoek deitura ezberdina dutenean. Guztizkoaren % 92 dira.





#### OHAR METODOLOGIKOA

Ohar hau Nafarroako **Jaiotzen Estatistikako** datuetatik atera da eta Populazioaren Berezko Mugimenduaren Estatistiken parte da. Informazio hau erditze-agirietatik ateratzen da (agiri horiek betetzen dira jaiotzak Erregistro Zibilean edo ospitaleetan inskribatzen direnean eta erregistro horren arduradunek INEren probintzia-ordezkaritzetara igortzen dituztenean).

INEren eta Nastaten arteko lankidetzaren bati esker, txosten hau egiteko informazioa erabiltzerik izan da, besteak beste, haur jaioberrien izenak aztertzeko.

Ohar hau egiteko, Nafarroan bizi eta Foru Komunitatean inskribatu diren emakumeengandik bizirik jaio diren kasuei buruzko informazioa baino ez da aukeratzen eta aztertzen. Nolanahi ere, behin-behineko datuak dira.

- **Eragiketa-mota:** jarraitua, urtean behingoa.
- **Eremu geografikoa:** Nafarroako Foru Komunitatea
- **Emaitzak zer eperi dagozkion:** urteari
- **Bilketa-metodoa:** autobetetako galdetegia.



#### INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Onomastika. Jaiotzen estatistika. Biztanleriaren Berezko Mugimendua. 2022. urtea



**CONTACTO | HARREMANETARAKO**

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00

